



## euskara #mundiala!

### "Su haietatik hitz hauek" Euskara, Bretxako zirrikitutik arnasbide berrietara 1813-2013 Liburuxka eta weba

Euskarak azken 200 urteotan Donostian izan duen presentzia, garrantzia eta bilakaera jasotzen du eta Bigarren Mendeurrenaren 11. mugarria da. **euskaraz.net, 2013-10-28**

<http://www.euskaraz.net/Albisteak/1382958414>

Donostia erre, suntsitu eta berreraikitze-ko ebazpenaren Bigarren Mendeurrena dela eta, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Euskal Idazleen Elkarteak elkarlanean, euskarak azken 200 urteotan Donostian izan duen presentzia, garrantzia eta bilakaera jasotzeko "Su haietatik hitz hauek" liburuxka eta [www.suhaietatik.com](http://www.suhaietatik.com) weba argitaratu dituzte. Bigarren Mendeurrenaren oroi-zapenaren 11. mugarria da.

Liburuxka atzera begirako bat den arren, webean eta abenduaren 3ra bitartean antolatuko diren jardueretan aurrera ere begiratu nahi da, jendeari parte hartzeko aukera emanez euskara sustatzeko asmoarekin.

Aritz Gorrotxategi idazlea izan da liburuxkaren egilea. Bertan euskara eta Donostia eskutik joan direla eta doazela adierazteko hamaika datu, pasarte eta gertaera bildu ditu: bisitari ospetsuek euskarari buruz idatzitakoak, donostiar idazleek aipaturikoak, bertsolaritza edota euskal antzerkigintzaren presentzia eta garrantzia Donostian, euskarazko publizitatea, prentsa edota kantagintza, ikastolen sorrera eta abar. Horrez gain, euskararen normalizazioarekin zerikusia duten gertaerak ere bildu dira: euskararen beharra hainbat lanpostutan, euskararen aurkako zentsura, kale izenak euskaraz eta abar.

Liburuxka honek baina, badu ukitu literario eta artistikoa. Alde batetik egungo hamar idazle donostiarren testuak jasotzen dira (Joan Mari Irigoien, Arantxa Urretabizkaia, Ramon Saizarbitoria, Itsaso Araque...) eta bestetik argitalpen honetarako propio Arkaitz Barriolak egindako hainbat ilustrazio ageri dira.

Liburuxkaren 4.600 ale banatuko dira doan Donostiako ikastetxe, eskualtegi eta leku publikoetan. Liburuxka euskaraz argitaratu den arren, azken orrialdeetan gaztelaniazko laburpena du eta [www.suhaietatik.com](http://www.suhaietatik.com) webean argitalpen euskaraz zein gazteleraz dago.

### Weba eta erakusketak donostiarrek parte hartzeko egin dira

"Su haietatik hitz hauek" argitalpenaren edukia euskaraz zein gazteleraz webean jasota egoteaz gain, beste bi atal berri sortu dira jendearen ekarpenak jasotzeko. Batetik "Hitzen mapa" atalean, euskararekin lotura izan duten Donostiako gertaera garrantzitsuak jasoko dira eta horretarako jendearen parte hartzea eta ekarpena garrantzitsua izango da.

Bestetik, weba aurrera begira ere jarriko da eta herritarrari euskara sustatzeko aukera emango dio. Webean sartzen den edonor euskararen aldeko urrats bat ematera animatu nahi da, ekintza zehatz eta egingarria aurrera eramango duela adieraziz. Ekimen sinplea izanik ere, euskara sustatzeko eraginkorra izan daiteke oso, egunero-egunero hartzen eta aurrera eramaten diren erabakiak baitira hizkuntza indartzeko garrantzitsuenak.

Alderdi Ederreko Udal Liburutegi Nagusian eta Gipuzkoako Campusean (Carlos Santamaría zentroan) erakusgai egongo dira weba, liburuxka eta liburuxkarako egindako ilustrazioak abenduaren bukaera arte. Era berean, bertan jarritako ordenagailuan, jendeak bere konpromisoak grabatuta uzteko aukera izango du. Bestalde, ekimen hau kultur etxeetan ere izango da, baina modu ibiltarian (astero kultur etxe batean egongo da.



200 urte igaro dira Donostia erre zutenetik, eta ekitaldi ezberdinen bidez ospatu nahi izan dugu errautsetatik altxa ziren hiritar haien adorea. Haien errautsetatik sortu ginen gu ere. Haien hitzetatik gatoz gu ere. 200 urtetan gauza asko aldatu dira, noski; beste batzuk, apenas aldatu diren. Euskara ere aurrera eta atzera ibili da urteotan, orain zalditik astora, orain astotik zaldira. Web orri honetan 200 urteko ibilbide horren une, ahots eta gorabehera ezberdinak jaso nahi izan ditugu.

Finean, hitzak sutara bota arren haiek ez dira itzaltzen, ezkututzen baizik. Hitzek suaren garrei iskin egiteko gaitasuna dute, eta berriro itzultzen dira isilka gure ezpainetara. Donostiar haien hitza ere ez da itzali. Eta zurea ere entzun nahi genuke, Donostiako hitzen haria osatu. Zu ere protagonista zarelako.

### Carlos Santamaría

"No veo por qué la entraña popular vasca vaya a ser incompatible con el ritmo «yeyé». Al contrario, me felicito de que la vieja lengua de Aitor haya sido capaz de encontrar ahí un campo de expresión, porque esto significa que está aún viva y que en ella subsiste aquella capacidad de adaptación que algunos, como Unamuno, habían pretendido negarle definitivamente"

## EUSKARAREN EGUNA OSPATZERO "SU HAIETATIK HITZ HAUEK" ERAKUSKETA IKUSGAI GIPUZKOAKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKAN

Gipuzkoako Campuseko Bibliotekaren atarian (Carlos Santamaria Zentroan) "Su haietatik hitz hauek" erakusketa duzue ikusgai, abenduaren bukaera arte. Bertan erakusten dira izenburu berarekin Donostiako Udalaren Euskara Zerbitzuak eta Euskal Idazleen Elkarteak, elkarlanean, argitaratutako liburuxkaren irudiak. Donostia erre, suntsitu eta berreraikitzeke ebazpenaren bigarren mendeurrena dela eta, euskaraz azken 200 urteotan Donostian izan duen presentzia, garran-tzia eta bilakaera jasotzeko da liburuxka.

Aritz Gorrotxategi, idazlea, izan da liburuxkaren egilea; irudiak, berriz, Arkaitz Barriolak egin ditu. Bertan, euskara eta Donostia eskutik joan direla eta doazela adierazteko hamaika datu, pasarte eta gertaera bildu ditu: bisitari ospetsuek euskarari buruz idatzitakoak, donostiar idazleek aipaturikoak, bertsolaritza edota euskal antzerkigintzaren presentzia eta garrantzia Donostian, euskarazko publizitatea, prentsa edota kantagintza, ikastolen sorrera eta abar. Liburuxkaren ale bat Mailegu Zerbitzuan eska dezakezu, aleak agortu arte. [www.suhaetatik.com](http://www.suhaetatik.com) web orrian ere eskura dago liburuxka.

Web orriak euskararen oraina zein geroari begiratzen dio, bere erabilera sustatzeko asmoarekin. Bere helburua da edozein hiritarrek euskararen aldeko ekarpenak egiteko konpromisoa hartzea. Azken xedea, konpromisoak, txikiak izanda ere, aurrera eramatea da; eguneroko ekintza eta erabakiak eraginkorrenak baitira hizkuntzaren garapen eta sendotzean. Irudien erakusketaren ondoan ordenagailua duzu; bertatik, zure proposamenak edo euskararekiko konpromisoa adierazten duten mezuak bidal ditzakezu. Eta nahi izanez gero, webcam bidez grabaketa txiki bat ere bai. Ez ahaztu abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatzen dela eta Donostiako Alde Zaharrean hainbat ekintza izango direla (erakusketak, dantza, musika, antzerkia, etab.); Antzoki Zaharrean ere 11:00etatik aurrera ikuskitzuna bat antolatuta da.



**Euskara #mundiala!!!** | Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna datorrela-eta, Eusko Jaurlaritzak #mundiala kanpaina ipini du martxan. [www.mundiala.net](http://www.mundiala.net) atarian sartu eta munduko edozein tokitan dagoen lagun bati txio bat eginez gero, munduko euskaldunak identifikatu eta mapa osatzen lagunduko duzu!!! Euskara Mundiala Etxepare Euskal Institutuaren egitasmo bat da. Munduan zehar ahalik eta jende gehienak euskaraz zerbait esatea da nahi dugua. Webgune honetan era askotako esaldiak dituzu entzungai. Aukeratu gustukoena duzuna eta grabatu zure webcam-a erabiliz. Edo bestela, esaiguzu, zeure kasa, nahi duzuna eta igo zure bideoa. Anima zaitetz!

### Itxaso Araque

Oroitzen dut nola Egiako Konkorronea aldatik gora egiten zuen aitona-amona andana batek eskolako txirrinak jo aurretik. Gu arrapaladan atera eta hantxe aurkitzen genituen zain; muxu bat eta aluminiozko papera zakarrontzira. Plaza Haundin, Atotxan edo Gladys Enean bukatzen genuen ogitartekoa. Merienda euskaraz eta afaria erdaraz egiten genuen gehienok, gurasoak erdaldunak baikenituen. Afal ordurako, halabeharrez, itzultzaile profesional bihurtzen ginen denak.

Oroitzen dut baita ere nola atzerrian bihurtu nintzen donostiar, herri-minak sortzen duen chauvinismo malenkoniatsu horrek jota: 'Ni donostiarra naiz, Donostia bertakoa'. Gerora konturatu nintzen atzerria joan gabe ere herri-mina sentitzen zutela guraso erdaldun haiek, ez zutelako inoiz Donostia euskaraz bizi izan. Eta ulertu nuen euskarazko mundu hori gurasoek ezagutarazteko arduradunak anaia eta biok ginela, iluntzeroko afaritan.

### Arantxa Urretabizkaia

Gu hasi ginenean, euskal letretan ez zegoen ezer. Argitaletxeak ere apenas zeuden eta hortik kanpo ez zegoen ezer. Orain sistema literario oso bat daukagu: uniber-tsitateko azterketak ditugu; argitaletxe profesionalak, ez gureak bezala boluntarioen lanarekin egiten zutela aurrera... Bonsai tamainako sistema literario oso bat daukagu. Niretzat, irakurraldi hau sistema horren baitan sartzen da eta atzera begiratzen badut, mirari bat da. Gu hasi ginenean inondik inora ere amesten ez genuen miraria da.

Ez ginen hainbeste amestera ausartzen. (...) Orain gu gara idazle arruntak, ez gara profesionalak, gutako oso gutxi bizi da idazte hutsetik. Baina bestela, gure sistema ingurukoen parekoa da eta gu hasi gine-nean, ez genuen ezta hizkuntza bateratu bat, estandar bat, bakoitzak nahi zuen edo bere ideologiak uzten zion moduan egiten zuten..., eta begira orain daukaguna! Duela 40 urte ez genuen orain dugun erdia ere.

### Harkaitz Cano

1989an etorri nintzen Lasartetik Donostiara bizitzera. Lasarte ez zen herri bereziki euskalduna orduan, baina bai ni mugitzen nintzen ekosistema: Landaberri ikastola oso ikastetxe gaztea zen, dinamikoa, eta euskararen munduan oso aktiboa eta militantea, hitzaren zentzurik jolastienean. Adibide bezala esan nezake, gure klasean lagun bakarra zegoela hika hitz egiten zuena, baina urteen poderioz, hain zen bera konstante —Tauro zen, gainera— denok ikasi baikenuen azkenean...

Matematikak kontrakoa esan arren, baten ohiturak gailendu ziren gainerako guztiongan. Beti jartzen dut adibide hau erakusteko nola gutxiengo batek —bakar batek kasu honetan: biba hi, Aitzol— inguruko hogeia kutsatu ditzakeen, bakar horrek benetako nortasuna eta xarma badauzka. Donostiara etorri nintzenean horixe nabaritu nuen: Santo Tomas Lizeoan herrietatik etorritakook baino ez genuela hika hitz egiten oro har, eta horrek —hikaren kontuak, pentsa ze txikiherria! — lagun-talde propioa sortzea ekarri zigun, apartheid txiki bat (tira, apur bat exajeratuz). Urnieta, Orio, Añorga, Lasarte... Herrietatik etorriak "berriak" ginen, eta, gainera, euskaraz hitz egiten genuen... eta hika... Nire inpresioa zen, euskara Donostian jada ez zela hain "cool" (hitz hori orduan erabiltzen ez zen arren: "guay" esan beharko). Baina guk hika hitz egiten jarraitu genuen. Gaur arte.



### Txirrita

"Larogei urte gañean ditut nago anketako miñez, Donostiara etorria naiz erren aundia egiñez, bi bastoiekin txit larri nabil pausorik eman eziñez, euskera iya' aztu zait 'eta erderarrikan jakiñ ez, maixu batekin eskolan laster asi bear det latiñez"

## SAREAN

### Euskal Idazle Elkarte

<http://www.idazleak.org/euskara>

Euskaraz azken 200 urteetan Donostian izan duen bilakaera aztertu dute Berria, 2013-11-01

"Su haietatik hitz hauek" Euskara, Bretxako zirikitutik arnasbide berrietara 1813-2013 liburuxka eta weba

donostia.org, 2013-10-28

Euskararen Nazioarteko Eguna 2013

YouTube, 2013-11-20

[http://www.youtube.com/watch?v=Cy\\_I0U2FmQpSns-fb](http://www.youtube.com/watch?v=Cy_I0U2FmQpSns-fb)

Gabriel Arestiren jaiotzaren 80. urteurrena Zorrotzan Zorrotza Elkarte, 2013-10-12

<http://zorrotzaitzatea.wordpress.com/2013/10/12/gabriel-arestiren-jaiotzaren-80-urteurrena-zorrotzan/>

Se presentan el cuaderno y la web "Su haietatik hitz hauek"

euskaraz.net, 2013-10-31

<http://www.euskaraz.net/Albisteak/1382958616>

Un cuaderno repasa el desarrollo del euskera durante 200 años

EFE | Noticias de Gipuzkoa, 2013-10-29


Un cuaderno repasa el desarrollo del euskera en Donostia durante 200 años

EFE | El Diario Vasco, 2013-10-28

Se presentan el cuaderno y la web "Su haietatik hitz hauek"

donostia.org, 2013-10-28

<http://www.donostia.org/2013/10/28/se-presentan-el-cuaderno-y-la-web-su-haietatik-hitz-hauek/>



liburutegian ere EUSKARAZ!

